

...eta

Kittó!

819 zkia.
2012-IX-28



KLUB bat



baino gehiago



Recalde

Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu horren
zura mugiorarekin
eta iriz
gure webgunean



• Katarata ebakuntzak lente multifokalarekin.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

Berrikusi zure seme-alaben hartz-osasuna



Ainhoa Zulueta DOKTOREA

“Haurtzarotik egiten dugu prebentzioaren alde, hortzak hazten ari direnean zainduz”

Maitane G. Iñiguez DOKTOREA

“Umeen hortzak aztertzea garrantzitsua da, kolorazio-aldaketak, orbanak edo puntuak dauden ikusi ahal izateko”

Irabazal hartz-klinikan txikienak zaintzen ditugu. Dentistara urtero joatea aldi baterako hortzaldiaren (esne-hortzak) prebentzioaren oinarria da; umeei hortzak nola garbitu eta hortzetako fluorazioari buruzko saio didaktikoak eskaintzen dizkiegu.

– Noiz joan behar du haur batek lehen aldiz dentistarengana?

Urtebete egiterakoan egin behar da lehen bisita, dentistarekin batera dieta, biberoi, garbiketa eta fluoraren erabilaren inguruko aholkuak errepasatzeko. Haurra klinikan eroso sentitzea eta ohiko azterketara ohitzea ere lagungarriak dira.

– Noiz hasi behar dugu hortzak garbitzen?

Hortzak irten baino lehen garbitzen hastea komeni da, egunean bi bider eskuoial umel bat pasatuko diogu hortzoietatik eta irteten ari diren hortzetatik (garrantzitsuena gauekoa da). 2 urterekin eskuilarekin eta fluorra duen pastarekin hasiko gara, egunean 3 bider.

– Kariesari nola egin diezaiokegu aurre?

Diagnostiko goiztiarra da kariesik ez edukitzeko tresnarik onena. Aitzindariak gara LASER bidez kariesaren diagnostikoan. Aholku praktikoak haur txikientzat:

- Ez sartu haurra ohera azukredun likidoz betetako biberoiarekin
- Urtebeterekin edalontzian edaten hasi
- Azukre gutxiko elikagaiak (zuku naturalak)
- Ez busti txupetea azukrea duten produktuetan (eztia, azukrea...)

– Zergatik da garrantzitsua esne-hortzak zaintzea, gero erori egin behar baldin badira?

Esne-hortzen infekzioak azpian dagoen hortza (behin betikoa) kaltetu dezake. Esne-hortza garaia baino lehenago erortzen bada, behin betiko hortzaren koka-pena eta irteera alda daiteke.

– Zer gerta daiteke kariesari ez badiogu aurre egiten?

- Infekzioak, mina eta umearen garapen fisikoaren murrizketa.
- Karies gehiago behin betiko hortzetan.
- Esne-hortza galtzen bada: ESPAZIOEI EUSTEKO aparatatu txiki bat jarri behar da, behin betiko hortza irten arte lekua gordezke.

– Atzamar lodia zupatzea txarra da umearentzat?

Atzamarra zupatzea kaltegarria da, eta baita txupetea 18-24 hilabetetik aurrera erabiltzea ere, mihiaren posizioa aldatzeak gaizki hozkatzea ekar dezakeelako. GALDETU ZURE DENTISTARI!

– Fluorra erabiltzea ona da?

Fluorrak hortzak kariesetatik babesten ditu, aurrera egin ez dezan. Txorroreko urak fluorra dauka, eta ur hori erabiltzea etengabeko babesa da. Karies-arriskuaren arabera hortz-klinikan fluor topikoa erabiltzea da kariesari aurre egiteko tresnarik onena.

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

Egizuz PADI-ren azterketak

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Norbanako gisa garatzeko, zure belaunaldiko balioen kontra egin behar duzu. Eta 70eko hamarkadan, gazte ezkertiarrek ez ziren rock-and-roll-arekin identifikatzen -hori akats historikoa da-, free-jazzarekin baizik"
(OLIVIER ASSAYAS, ZINEMAGILEA)

"Txinako azken belaunaldikoek ez dakite zer gertatu zen Tiananmengo plazan, ezta anai-arrebak izatea zer den ere. Txikitatik lehiakor izatera ohitzen direnez, ikasleen arteko suizidio tasa oso handia da"
(ZIGOR ALDAMA, KAZETARIA)

"Banka etikoan langile arrunt baten eta kontseilari-delegatu baten soldataren arteko harremana 1-10ekoa den bitartean, gainontzeko bankuetan soldata-abanikoa 1-1000koa izatera irits daiteke. Badugu aukera hori"
(ALAJA ELORRIETA, EKONOMILARIA)

"Euskara `ohiko eta lehentasunezko hizkuntza´ izatea du helburu EH Bildu-k; baina ezker abertzaleak, Otegiren liburuaren kasuan, ez dio lehentasunik eman euskarari. Zergatik behartzen gaituzte erdaraz irakurtzera?"
(JOSE M^o PASTOR, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

ITXURIA.- Dirudienez, antza denez. "Azkenian ailegatu dok? Bai, itxuria".

ITXURIA DAN LETZ.- Antza denez, itxura denez, dirudienez. "Itxuria dan letz, ez da ondiokan hill".

ITXURATU.- Txukundu, forma eman. "Itxuratu ditue inguruak, erregia datorrenerako".

eskutitzak

ESKERRIK ASKO LEGARRE

Joan zaizkigu aurtengo Legarreko jaiak ere. Eta aurtengoan ere auzoari eskerrak eman beharrean gaude. Benetan ondo pasa genuen, giro paregabea eta auzolana ugari. Eskerrik asko auzoko eta kanpotik etorritako guztioi jaietara etorri, lan apur bat egin eta denok asko gozatzeko aukera izan genuelako.

Mila esker diruz lagundu diguzuenoi ere, zuek gabe ezingo genituzke eta jaiak aurrera atera. Zozketetan berriz, zenbaki sarituak hauek izan dira: le-

henengo saria 1952 eta bigarrena 655. Zorionak sarituei eta on egin.

Auzoa bizi-bizirik daukagula ikusi genuen pasa den asteburuan, kantu, dantza, jolas eta izerdi artean jai herrikoi eta politikortu ditugulakoan gaude. Gu datorren urterako ere lanean jarraitzeko prest. Eta ez dugu zalantzarik, bi urte hauetan bezalaxe, hirugarrenean ere zuen denon laguntza izango dugula. Mila esker denoi.

ARRAJOLAPE KULTUR ELKARTEA (LEGARREKO JAI BATZORDEA)



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUARA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi.

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.000 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTA)

kutxa gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

autuan

BARDINTASUN BATZORDIA

Udaleko Bardintasun Batzordiak iraillaren 24an egindako billetarian, aho batez adostu eban "sexu-esplotaziñorako giza salerosketaren, esplotaziño sexualaren eta emakumien kontrako indarkeria mota guztien kontrako erabateko gaitzespena adieraztia".

AZKEN OSTIRALA

Eibarko Herrirak deittuta, gaur arratsaldian 19.30xetan "Euskal presuak etxera" lemari jarraituta giza-katia egingo da, Untzagatik hasitta. Bestalde, 20.30xetan ongiatorriza egingo jako urte bi kartzelan emon dittuan Aniaiz Ariznabarretari eta jarraixan nahi dabenak gaztetxian egingo daben afarixan parte hartzeko aukeria izango dau.

UNZAGA HOTELA

Gaur inaugurauko dabe modu ofizialian Hotel Unzaga Plaza, 19.30xetan hoteleko aretuan hasiko dan ekitaldixan. Arrate hotela itxi ostian, abuztuaren hasieran atzera be zabaldu eben hotela Heybar Hotels&Resorts enpresakuak.

Sagardo Eguna urrixan 6xan

Urteroko moduan, Sagardo Eguna ospatuko dogu, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Urrixan 6xan eguadiko 12.00xetan hasi eta 15.30xak arte eta arratsaldeko 19.00etatik sagardo guztia amaittu

arte, Gorenak alkarteko 13 sagardotegietatik ekarrittako sagardaua edateko aukeria eukiko dau nahi dabenak, zelan ez, pintxuak lagunduta. Gaiñera, aurten umiendako "sagarrak batzen" jokua antolatu dabe.

Grebak jarraipen haundixa euki eban

Eguaztenerako deittuta eguan grebak jarraipen haundixa euki eban Eibarren eta, salbuespen gitxi batzuk izan ezik, herrixan tallar, denda, taberna eta bestelakuak itxitta egon ziran. Hiriburuetan eguadixan egin ziran manifestaziñuak jendetza batu eben eta arratsaldian, barriz,



Gobernuaeren murrizketen kontrako idatzixa irakorri eben. S. HERNANDEZ

eskualdeka egin ziran manifestaziñuak. Eibarren Untzagatik urten zan 18.00etan eta, aurreko greba orokorrian baiño jende gitxiago alkartu zan arren, jendetza batu zan atzera be Madrilgo gobernuaren murrizke-

teri ezetz esateko. Bezperan be manifestaziñua egin zan grebaren harira, EH Bilduk deittuta eta Alternatiba, Aralar, Eusko Alkartasuna, Ezker Abertzalia, LAB eta EHNE-ren babesarekin.

San Miguel jaixak Agiñagan

Bixar San Miguel eguna izango da eta, urteroko moduan, Agiñaga auzokuak jaixak ospatuko dittue. Gaur 18.00etan kanpai-errepikiak iragarriko dittu zapatu eta domekan etorriko diranak: bixar 11.00etan meza nagusixa ospatuko dabe, Usartza txistulari bandakuak lagunduta eta jarraixan lunch-a eta umiendako jolasak egingo dittue. Ondoren, lagunarteko bazkarixa egingo dabe Agiñagan bertan, Usartza txistulari bandakuekin batera. Eta arratsalderako briska txapelketia, umiendako jolasak eta txokolate jana dagoz iragarritta. Lagunarteko afarixaren ostian, erromerixia egingo da Gardoki taldiarekin eta goizaldian, barriz, txokolate jana. Eta domekan, 11.00-etako mezaren ostian lunch-a eta Gorritiren animalixak aillegauko dira. Bazkaltzeko paella-jana egingo dabe, trikitilarixak alaittuta eta jaixak agurtu baiño lehen, zozketia egongo da.



Bixar izango da San Miguel jaixetako egun haundixa.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net



- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Kulturen arteko jaixa domekan


Martitzenian presentau eben Portalean Gorka Errasti Inmigraziño teknikarixak eta Ana Rodríguez Fouz ziñegotzixak domekan 11.00etatik aurrera Untzagan ospatuko dan Kultur Arteko Jaixa. Beste batzuetan egindakuaren bidetik, goiz osuan zihar festan parte hartuko daben herrialdietako (Maroko, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Brasil, Senegal, Pakistan, Euskal Herria...) produktuen dastaketia eta salmenta egingo dira. Hórrek herrixon gaiñeko informaziñua be eskuragarri ipiñiko dabe. Horrekin batera, Zurrumurrue Txokoa izenekuan jendiak etorkiñekin lotuta entzuten dittuan zurrumurruek idaztera animau nahi dabe; haur eta helduendako taillarrak be antolatu dittue (henna tallarra, manikura latinua, "Idatzi zure izena arabieraz, urdu eta woloferan"); eta horrek guztiak girotzen munduko musika eta dantza erakustaldixak eskinduko dittue (Lacasiunen eskutik dantza latinoamerikarrak, Batukey Eibarko batukada feminista eta M'lomp



Senegalgo perkusiño taldia). Udalak antolatutako jaialdixak SAFA andra musulmanen alkartiaren, Lacasium andra latinuen alkartiaren, Eusko Islamiar Kontseilluaren, Urbat waterpolo taldiaren, M'lomp alkartiaren eta PAK Bizkaia alkartiaren laguntasuna jaso dau.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzatik sustatzen daben Inmigraziñorako Itun Sozialaren harira, atzo arratsaldian udaletxeko patixuan inmigraziñuari buruzko debatia egin zan eta bertan parte hartzen Eibarko 45 taldetako ordezkariak egon ziran.

Juan Andres Argoitia



Sirian be bardin?

Libiako iraultza amaittu zanian, mendebaldia (governuak eta komunikabide gehixenak) Siriari begira jarri zan, ia han be *Udaberri Arabiarrak* aurrera egitten eban. Halanda be, Gadafi zelan akabau eben ikusitza eta Libian oin agintzen dagozenak zelakuak diran konturatuta, hango eredu zalantzan ipintzen hasi dira batzuk. Berez antzekotasunak asko dira: herri bixetan diktadore bat eguan/dago agintzen; bixetan herritarrak diktaduraren kontra jarki ziran eta, gogorrago edo bigunago, diktadoriak manifestaziñuak zapaldu zittuen; matxinada bixak Naziño Batuen, mendebaldiaren, Turkiaren, Israelen eta monarkia arabiarren babesa izan dabe; batzuk laguntasuna ez eze, mertzenariuak (islamistak eta bestelakuak), armak eta dirua be bialdu detsez. Baiña badago desbardintasun bat, eta ez badaezpadakua. Gadafi hasieratik bakarrik laga eben eta Bachar Al Assadek lagun haundixak dakaz: Errusia, Txina eta Iran. Hórrek Siriako presidentiari eusten detsen bittartian, gerra zibillak segidu egingo dau harik eta governuak, daukan armada indartsuari esker, irabazi arte. Hobe izango da, beraz, hainbat ariñen bake-hitzarmen bat jiratzia ze, Libiako moldia ezartzen badabe, orduan bai azkena izango dala.

Wenzeslao Orbeako jaixak

Bixarko antolatu dittuenekin ospatu nahi dittue euren kaleko jaixak Wenzeslao Orbeak: programiari 11.00etan ekingo detse, Marisol Arrillaga eta bere ikasliak alaittuko daben kalejiria eginda. Jarraixan jolaseri ekingo detse (sokatira, zaku-lasterketak, txapela botatzia...) eta horrek amaittuta, herri-kirolak aillegauko dira: gaztiendako harri txikixekin jarduteko saiua preparau dabe. Txistorra pintxuak janda, bazkarirako ordua aillegauko da (igogailluaren plazoletan marmittakua jango dabe). Eta arratsaldian, 17.00etatik aurrera play-back-ian parte hartzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak. Hurrengo urtietan jarraipena izateko esperantzarekin animau dira aurten lehelengoz jaixak antolatzen.



Azoka eta txanguarekin agurtu zan Aste Ekologikua

Debabarreneko I. Aste Ekologikua hartu eban gure herrixak aurreko astian eta, programiari agur esateko, aurreko zapatuan Urkizuko parkian 29 salmenta-posturekin osatutako azokan era guztietako produkto ekologikuak erosteko aukeria izan eban jendiak. Gaiñera, galletak eta bestelakuak preparatzen ikasteko taillarrak egon ziran martxan eta jende mordua erakarri eben. Eta domekan, barriz, 8 bat lagun animau ziran

Domekako txanguan Abontzatic Urkora jua ziran.
ISABEL ARREGI



Abontzatic Urkora juateko antolatutako txanguan parte hartzera, Sosola basarriko Enrike Gisasola gidari zekela.

asteko
1.784
datua

etorkin dagoz Eibarko errolda osatzen dabean 27.560 totalaren barruan (%6'47). Hórretatik 612 Marokotik etorritakua dira. Jarraixan komundade haundixenak Portugal, Kolonbia eta Boliviatic etorritakua dira.

Ikastetxe inguruetan bide segurtasuna hobetzen

Eskolako Agenda 21 programari jarraituta ikasliak eskatutakueri erantzun detse Udalak eta, horren harira, zebra-bidiak egokittu dittue Amaña herri ikastetxe inguruan eta Uni Eibar-Ermua BHI parian. Egokitzapenak Excavaciones Olloquiegui S.A.k egin dittu eta biharren aurrekontua 13.290 eurokoa izan da. Martitzenian ekitaldi sinbolikua egiñ eben ikasliak eta irakasliak, udal ordezkariexekin eta Debegesako teknikuekin batera, hiru zebra-bide inauguratzeko: "Uni Eibar-Ermua BHI ikastetxiaren ingu-

Uni Eibar-Ermua parian egokittutako zebra-bidia.



ruan, Otaola Hiribidian eta Torrekua kalian dagaizen zebra-bide bi altxau dira, automobilien abiadura moteltzeko. Bestalde, Artegieta kalian zebra-bide barrixa egin dabe". Ekitaldixa Mugikortasun Iraunkorraren Astiaren testuinguruan egin zan.

Nafarroa Oíñez eta hauteskundiak

Nafarroako ikastolen aldeko jaixa aurten Zizur Txikian ospatuko da urrixak 21ian, hain zuzen be Eusko Legebiltzarrerako hauteskundiak egingo diran domekan. Horregaittik, bertara juateko asmua dakeneri hori kontuan hartzeko gogora ekarri nahi detse alderdi politikuak, batez be botua emoteko asmua dakeneri. Edozelan be, egun horretan kanpuan egotia pentsatzen dabena botua aurretik korreoz emoteko aukeria dake, epia urrixaren 11ra artekoa da-eta. Botua korreoz emon nahi dabeneri laguntasuna emoteko, alderdi politikuak arretarako zerbitzu berezixak ipiñi dittu martxan: Batzokixan astelehenetik barixakura hartuko dabe jendia, 10.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 19.00etara.

PSE-EEk Casa del Pueblon daka zabalik bulegua, 09.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 19.00etara. Eta Eibarko Bilduk aurreko barixakuaz geroztik Toribio Etxebarria kaleko 15ian, Klub Deportibuaren parian zabalik daka bulegua, hauteskundiekin lotutakuak bertan tramitatzeko.

Bestalde, Mogel Ikastolak eta ...eta kitto!-k antolatutako autobusa goizeko 08.30etan irtengo da eta 18.30etan bueltatu.



Ikasliendako laguntzak

Ikaslieri diru-laguntzak emoteko epia zabalik dago, baiña aurten beste batzuetan baiño lehenago amaittuko da eskaeriak presentatzeko epia, urrixak 31n, horregaittik interesa dakeneri argi ibiltzeko eskatu nahi detse. Umeak Eskolara 1997ko urtarillaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bittartian jaixotako umiak eskatu leikie eta Dirulaguntzak Ikasleei programako laguntasunak, barriz, irakaskuntza arautuko edo lanbide-prestakuntzako ikaslieri zuzenduta dagoz. Informaziño zabalagua lortzeko Pegoran galdetu leike.

GIDA

PRESTATZEN DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?

943 20 67 76

DEITU... 943 20 09 18



J. ANTONIO AZNÁREZ (gotzain laguntzailea)

“Eliza oso etxe handia da eta bertan denetarik dago”

Eibarren jaioa, bizitza gehiena sorterritik kanpora eman du ekainaz geroztik Iruña eta Tuterako elizbarrutietako gotzain laguntzailea den Juan Antonio Aznárez-ek. Hala ere, familiaren zati bat hemen duenez ez du sekula galdu Eibarrekiko lotura eta ahal duenean etortzen dela azaldu digu elkarrizketako galderak erantzutean.

- Nola jaso zenuen zure izendapenaren berri?

Maiatzaren 22an izan zen, nire artzapezpikuaren ahotik jaso nuen berria. Oso zaila da horrelako une batean norberak sentitzen duena azaltzea. Sentimendu asko elkartzeko dira: ezustea, barne konmozioa, bertigo modukoa... lurrikara baten parekoa da!

- Izendapenak eraginik izango du orain arte garatzen jardun duzun beharrean? Zein mailatan izan dezake?

Bai, jakina. Oraingo lehendik nere eskutan zeuden eginbeharreko askorekin jarraituko dudan arren, bikario orokor edo irakasle modura jarduteaz gain, gotzain laguntzaile modura ere jardungo dut. Bestalde, seguruenerik gure artzapezpiku Francisco jaunak gotzain baten betebeharreko zuzenak diren lan berriak egiteko ardura ematen joango da.

- Iruñeko San Miguel Arcángel ikasketa teologikoetarako goi mailako zentruan zuzendaria zara. Zein da bertan egiten duzun lana?

Elizbarrutiko seminaristak eta erlijioso batzuk formatzeko zentrua da eta zuzendari bati dagozkion zereginak egiten ditut. Hori bai, horiek egiteko orduan Anabel idazkariaren eta zentruko irakasleetako bat den

Iñakiren laguntza ordainezina daukat.

- Horrez gain, hainbat ikastetxetan Eskritura Santua irakasten duzu. Nolako da zure irakasle lana?

Irakaskuntza gustoko dut. Niretzat horren garrantzitsua izan den eta izaten jarraitzen duen Jaunaren Hitzarekin zerikusia duten gaiak irakastean, gainera, are gehiago disfrutatzen dut: San Juan, San Pablo, Eskritura Santura sarrera, hebreera...

- Nolatan erabaki zenuen Eliza-ren bidea hartzea?

Seminarioan sartzea erabaki nuen Jainkoak ordurako Kristo eta Elizak zaintzen dituen bizitza berriko, egiazko, askatasunezko eta jakinduriazko erretserba amaitezinak deskubritzen hastea oparitu zidalako eta Jainkoak berak oso modu anitzetan

adierazi zidan ni salbatzen, argiztatzen, sendatzen, askatzen, biziberritzen eta indartzen ziharduen Ebangelioa ezagutzera ematera nire bizitza osoa eskaintzera deitua nintzela.

- Nola ikusten duzu Elizak gaur egun bizi duen egoera?

Behin, bataiatuta zegoen kazetari batek Kalkutako Teresari galdetu zion: “Nola dago Eliza?”. Eta Teresak erantzun zion: “Nola zaude zu? Ba hala dago Eliza”, amaitu zuen erantzuna erlijiosa santuak. Elizan denetarik dago. Eliza oso etxe handia da, ikaragarri handia den ospital modukoa eta bertan orotariko izpirituz gaixo daudenak aurki ditzakezu eta, era berean, oso osasuntsu dagoen jendea ere (egia esan, gizakien bihotza barrutik sendatzen espezialista onena den Kristok sendatutako-

ak). Pozik bizi den jendea izan ohi da, euren bizitza besteengatik ematen duen jendea, bereziki behartsu, gaixo eta premia gehien dutenen alde.

- Zure bizitzaren zatirik handiena Eibartik kanpo eman duzu, baina nolako oroitzapenak daukazu? Etortzen zara hona?

Bai, lantzean behin joaten naiz Eibarrera eta oso gustora, gainera. Eibarren nire arreba Belen, bere senar Alberto eta Markel eta Julen ilobak dauzkate eta, horrez gain, nire osaba-izeko eta lehengusuetako asko ere han bizi dira. Eibarren eman nituen urteetatik oso oroitzapen politikak dauzkate. Urkin bizi ginen eta kalean asko jolasten genuen, orduak eta orduak ematen genituen kalean jolasean, batez ere eguraldi ona egiten zuenean. Udan, El Bosque-n (Santander) ez geundenean, gurasoek trenetz Debara eramaten gintuzten, eguna hondartzan pasatzera. Beste gauza askorekin gogoratzen naiz: San Andres eskola, Arrate, jai egunetan gurasoekin mendian edo kalean egiten genituen pasiadak, domeka arratsaldetako zinea, San Andres elizako meza eta katekesia hasieran eta geroago San José Obreron, familia arteko ospakizunak (batez ere Gabonak amamaren etxean)...

s o s l a i a

Juan Antonio Aznárez Cobo Eibarren jaio zen, 1961ko urtarrilaren 14an. Familiarekin batera Tuterara bizitzera joan zen 13 urterekin. Zaragozako Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatu eta gero, 1984an Iruñeko Seminarioan sartu zen. 1990ko urriaren 27an presbitero izendatu zuten. Teologia ikasketak sakontzeko Erromara bidali zuten eta 1997an Zientzia Biblikoetan lizentziatu zen eta Italiatik bueltan hainbat kargu bete ditu Nafarroako parrokia ezberdinetan. 2009az geroztik Iruña eta Tuterako elizbarrutietako bikario orokorra da, 2010ean Iruñako Santa Maria Katedralean kalonjetea eman zioten eta aurten, 2012ko ekainaren 9an Benedicto XVI.a Aita Santuak Iruña eta Tuterako gotzain laguntzaile izendatu zuen.

1924an jaixotako Klub Deportibuk Toribio Etxebarria kalia dauka egoitza eta Eibarko biztanleguaren ix %10 bertako bazkidea da. Ez dago alkarte askorik, Euskal Herri osuan, tamaiña horretako bazkide kopuruarekin - "gaur egun 2.400 gara, baiña 3.000 be izan ditu klubak"- . Aktibidadiak be, danetarik egitten ditue kluba osatzen daben 13 komisiñoko partaidiak; horren guztiaren barri emoteko, atiak zabaltzia erabagi dabe arduradunak eta, holan, bixar goizetik gaberira iraungo daben programia prestau dabe, kalia, jendiak ikusi eta parte hartu deixan.



KLUB DEPORTIBOAK atepak zabalik izango ditte bixar

Ate irekixen Eguna. Oñ arte ez dabe halako neurrik hartu, baiña Eibarko Klub Deportiboko hainbat komisiñoko arduradunak aspalditik jabetu ziran eurak egindako aktibidade asko ezkutuan geratzen zirala, "klubetik kanpoko jendiak ez zekala horren barri". Horrek bultzatu ditte egun berezi hau prestatzera; gaiñera, ohittuta daguazenez aktibidadiak egittera, ez dira, ez, motz geratu erakustaldixa egitterakuan.

Goiz-goizetik, urte guztian mendi komisiñokuak egitten daben moduan, ipiñiko dira martxan Deporrekua bixar. **09.00xetan** Mendi eta Espeleologixa batzordiak antolatutako urteera bi egingo ditue: batian, **helduentzako mendi ibillaldixan**, Deporretik (T. Etxebarria, 16) abiatuta Urkoraiño juango dira; bestian, **haur eta gurasuentzako mendi ibillaldixan**, Ego-Gaiñian autobusa hartu eta Ixuaraiño jua eta gero, handik Urkora igoko dabe. Urkon izango da zer ikusi: espeleologuak lagunduta bertako kobara juango dira.

Handik ordubetera, **10.00etan**, urteeria emongo jakue Argazkilaritza taldekeri Eibarren **argazkixak etaratzeko** eta, materixal horrekin, gero erakusketia eta bideuak prestatuko ditue. **11.30xetan** eski ba-

tzordekuak **roll-eskiak** erabiltzeko teknikak erakutsiko ditue; ez hori bakarrik, erakustaldixa be egingo dabelako. Calbetón kalia izango da eta 14.00ak arte iraungo dau.

12.00xetan hasi eta bazkaltzeko ordura arte (14.30), hainbat batzordetako ordezkariak jardungo dabe antolatutako aktibidadietan. Holan, **xake erraldoia** muntauko da Untzaga plazan, metro erdiko piezekin, 8x8 metroko xake taula batekin jokatzeko. Pilotakuak **eskupilotak egitten dituan artisaia** ekarriko dabe, "pilotak zelan egitten diran eta eskuko babesak zelan ipintzen diran" erakutsiko dabena. Hori be Untzagan izango da, udaletxeko arkupetan, eta jarraipena izango dau arratsaldian, **17.30xetatik 20.30xak arte**. Ordutegi bera, bai goizian eta bai

arratsaldian, izango dau **urpeko ekintzakuak** antolatu dabena: **materixala** ikusi ahal izango da eta **bideo** batzuk proiektatuko dira. Eta txirindularitza batzordekuak prestatu dabena be ordutegi bera izango dau: hor **Girora eta Tourrera juateko** erabiltzen daben **autobusa** bihurtuko dabe erakustoki eta han izango dira Debabarrena taldeko txirindulariak.

Azkenik, **squash** taldekuak (hau da Deporreko komisiño barrixena) **pista puzgarrixa** muntauko dabe T. Etxebarria eta San Juan kalien arteko pasabidian, Deporreko egoitzaren aurrian.

HERRI-BAZKARIXA

Ordura arte lanian jardundakuendako eta beste guztiendako (aurretik izena emon bada-



Sanjuanetan hainbat txapelketa antolatzen dira klubetik.



Ate irekixen programia.

be behintzat, jakiña) **herri-bazkarixak** indarbarrituko ditte partehartzaillik. Toribio Etxebarria kalia egingo da eta txartela aurkeztu biharko da. **15.00etan** hasi eta 17.30xak bueltan amaittuko da. Jarraixan aktibidade gehixago dago-eta.

18.00etan hasitta, Mendiakuak antolautako hainbat ekintza ikusteko aukeria izango da: ikusgarrixenetakua izan leiken San Andres elizako **kanpandorrera** egin biharreko **eskaladiarekin** batera, Kultu parian **herri-bulderra** ipiñiko dabe eta anbulatorixo parian dagan "Galerosoko parkeko parietian" **rokodromua**. Azken honak 20.00ak arte egongo dira.

San Andres parrokiako orman aspaldiko ohittura bat berreskuratuko da: pilotakuak antolatuta, pelotia hartu eta gaur egun debekatuta dagan "barruka" jokatzia. **Xakian**

be **aldibereko partidak** jokatuko dira, 20-30 lagunekin, Toribio Etxebarrian. 19.00etan amaittuko dira bi aktibidadiorrek. Xakian, dana dala, hori amaittuta, oso berezixa izango dan **itsukako xakia** (taula begiratu barik) jokatuko da ondoren, 20.000ak arte.

Aurretik, baiña, **18.30xetan**, espeleologixa egitteko aukera izango dabe bertarako izena emon dabenak: **errekastua jai-tsiko** dabe, Elgetako bidetik udaletxeraíño. Atletismoko probak be ordu berian hasiko dira be : **altura jauzixa** Untzagan, **hesi-lasterketia** eta **errelebuena**, azken hau Untzaga eta Fermin Calbetón-en artian. Probak 20.30xak arte iraungo dabe eta ordu horre-

tan hasiko da Deportibuaren aurrion egingo dan **funanbulismo** saiua. Antolatzailliak udaletxeko erlojurako eskaladia prestatuta bazeken be, Udalak ez detse baimena emon hori egitteko. Egunarekin amaitzeko, Kezka Dantza Taldekuak **erromerixia** egingo dau Untzagan eta hor be herrixak parte hartzia gura dabe antolatzailliak.

Egun eziñ betiagua, ikusten danez, "egurdixaren zaiñ" antolatzailliak gogoratzen deskuen moduan. Aktibidade guztiak kalian egin bihar dira-eta, "Untzaga, Calbeton, Zuloagak eta T. Etxebarriaren bueltan zentrauta; ahaztu barik Urkon be izango garala". Dena esku-eskura, beraz.



Argazkilaritza taldekuak Espaiñiako Sari Nazionala irabazi eben.



Javier Escudero bixarko programaren antolatzaillia, Mikel Larreategi klubeko presidentia eta Ehari Ulazia eta Miren Narbaiza klubeko Komunikaziño arloko arduradunak programia aurkezten.

ERRELEBUAREN BILLA

Mikel Larreategik da Eibar-ko Klub Deportiboko presidentia 2006. urtetik. Aurreko historia luziari eutsi detsala diño, "oiñ lan gehixago eskatzen badesku be: burokrazia lana handitu da". Krisixa igarri daben galdetuta, "kultura arluan gehixago" diñosku. "Kirol Patronatuak eusten detsa eta Diputaziñotik gitxiago jaso dogu". Hamahiru komisiño dagoz Deporren: Mendixa, Eskia, Espeleologixia, Txirrindularitza, Pilota, Atletismua, Urpeko ekintzak, Squash-a, Xakea, Kultura, Kezka Dantza Taldia,

Argazkilaritza eta Komunikaziñua. Ez dira gitxi: "Ez, baiña renobaziñua bihar dabe. Gatiak erakartzia gero eta gehixago kostatzen da eta horretan dihardugu. Mendi Batzordian, esaterako, eman da urratsa". Arraten ospatzen daben Klubaren Eguna izaten da urteroko egun haundixa. Jendiak ez dakixala zelako lana egitten daben kexu da Larretegi: "Gauza asko isillixan egingo bagendu moduan. Jende asko mugitzen dogu hamen, foballera doan masa bat moduan ez bada be. Gitxi praktikatzen diran kirolak bultzatziatz gaiñ".

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

Urriak 7 Kilometroak Andoainen

**UN
EGIN**
KMK 2012 ANDOAIN
AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Irteera:
09.30etan
Buelta:
19.30etan
-8 euro-

f
Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar:
Gtozia, 27

Bulegoa:
Eizabarkita, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
©943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El mundo vive los momentos felices

- Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leiza • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Monteros •

19 041
El mundo vive los momentos felices
El mundo vive los momentos felices

ETXEGABETZEAK


1.- Urte judizialaren irekiera ekitaldian, aste honetan, Lopez lehendakariak adierazi du ahal dituen ekimen guztiak abiatuko dituela langabetuak etxetik bota ez ditzaten. Alegia, baliabideak etxe bat erosi eta mailegu hipotekarioa ordaindu ezinik dagoen langabetuarentzat bankuak etxea ken ez diezaion.

Orain dela lau hilabete jarri zuen Eusko Jaurlaritzak abian zerbitzu bat, helburua duena pertsona batek mailegu hipotekarioa ordaintzen ez badu, prozesu hori auzi hipotekario ez bihurtzea eta etxejabetzaren gabetzarekin ez bukatzea.

Hipoteka-bitartekaritzako Zerbitzua, izenak dioen moduan, bitartekaritzakoa da. Horrek esan nahi du Zerbitzuak ez daukala ahalmenik gatazkan dauden bi alderdietako bati ezer inposatzeko. Bitartekaritzak berez dakar bi alderdiek bitartekaritza horren pean ezarri nahi izatea. Alderdietako batek nahi ez badu, ez dago bitartekaritzarik. Eta Eusko Jaurlaritzak bitartekaritza egiten du, ez duelako agintepiderik herritar batek eta banku batek sinutako kontratu hipotekario batean hitzartutakoan eragiteko. Ezta kontratua sinatu aurretik alderdi boteretsuak (bankuak) herritarri ezarriko dizkion baldintza gehiegizkoak murrizteko.



Elena Laka
abokatua



3.- Bitartekaritza-lanaren helburua, funtsean, mailegu hipotekarioaren atzerapen bat negoziatzean datza.

Aurreikusita daude helburu moduan baita ere karentzia epeak ezartzea, zorren murrizketak eta etxebizitza ematea zorraren truke. Hitzarmen hauek guztiak bankuaren onespina behar dute beti ere.

Bitartekaritza eginda ere, zorra ordaintzen ez bada, edo bankuarekin adostasun bat izan ezan, etxegabetzeko prozedura judizial batera jotzen badu bankuak eta ondorioz, pertsona zorduna etxetik gabe geratzen bada, Eusko Jaurlaritzak, lehenbailehen, babestutako alokairuko etxebizitza bat eskuratuko dio pertsona horri. Kasu hauetan beraz, herritarra etxearen jabetza barik geratzen da, eta Eusko Jaurlaritzak berarekin duen konpromisoa, hainbat arinen babestutako alokairu bat ematea.

Azaldutako gutzia hauteskunde hizkuntzan "jabetzapeko etxetik botako duten langabeturik ez" izenburu bihurtzen da.

2.- Bitartekaritzara jo dezake edozein euskal herritarrek, honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Ohiko etxebizitza erosteko 350.000 euro baino gutxiagoko mailegu hipotekario bat sinututa izatea
- Mailegu hori ordaintzeko modurik ez izatea. Ez da beharrezkoa langabezia egotea, arauak dio zerbitzua "gainzorpetuta" daudenei zuzentzan zaiela
- Beste etxebizitzarik ez izatea jabetzan
- Banku zordunarekin maileguaren baldintzak birnegoziatzen saiatu izana.

Borondatez Bitartekaritza honi atxeki zaizkion bankuek (Kutxabank eta Caja Laboral, nik dakidanez) konpromisua hartzen dute bitartekaritzak irauten duen bitartean, hilabetez, prozedura judizialik ez abiatzeko.

Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.

Indianokua gaztelekua martxa betean

Aurreko astetik, ohizko martxari heldu diote Indianokua gaztelekuan. 12-17 urte bitarteko nerabeentzat aisialdirako hainbat aukera eskaintzen dituen zentrua honako ordutegian egongo da zabalik aurrerantzean: martitzenetik eguenera, 18.00etatik 20.00etara; barixakuetan, 16.30etatik 21.00etara; zapatuetan, 17.00etatik 21.00etara; eta domeketan, 17.00etatik 20.30etara; eta astelehenetan atseden hartuko dute eta, beraz, itxita egongo da.

Ikasturte hasiera



La Salle Azitainen

Arrateko santutegira bisita eginda ekin diote ikasturteari La Salle Azitaingo ikasleek. Ibilalditxoaren ostean eskaintza-ospakizuna izan zuten eta bertan ikasturterako helburuak eta La Salle ikastetxe guztiek duten goiburua aurkeztu zituzten: "Zure esku dago, zure esku nago". Horrez gain, urtero legez zelaian hainbat joko egin zituzten. Eta bazkalostean bueltarako bidea hartu zuten. Ikastetxeko arduradunen berbetan, "aurten ere arrakastatsua izan da opor ostean ikasle eta irakasleok bat egiteko eguna eta, horregatik, izandako jarrera eta partaidetzagatik denei eskerrak eman nahi dizkiegu".



Formula Student 2012 automobil arrakastatsua

EHU-ko Injenieritza Goi Eskolako ikasleak, Armeria Eskolakoekin batera Bilbon elkarlanean garatzen diharduten "Formula Student Bizkaia 2012" proiektuaren lehen emaitzak jasotzen hasi dira. Sortu dituzten automobil biak denboraldiko txapelketetan parte hartzen izan dira eta, Montmelón izandako emaitza onari esker, estatu mailako taldeen buruan kokatzea lortu dute. Armeriako Mekanizatu eta Produktu Elektronikoaren Garapenerako heziketa zikloetako ikasleek proiektuan parte hartu dute, automobil bietarako pieza mekanikoak zein inprimatutako-zirkuitoak diseinatu eta ekoizten.



FILOAULA

Estudiatzen ikasi!!

- Estudiatzeko Orientabide ikastaro berezia.®
Ikaslearen baldintza eta helburuei, eta hezkuntza sistemaren eskakizunei, egokitutako ikaste teknikak.
- Filosofia klaseak.
- Irakurketa Ulerkorreko tailerrak.

www.filoaula.com
San Juan, 3 - 1.
Tel. 658-710827

Maila guztiak: LH, DBH, Batxilergoa...

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

EGOITZA NAGUSIA
Bilbo, Barrio 20 - beheko, eskutze

MUGICA FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erusketako laborategia

Egokien (ligna poligonoz)

Artikuluak: metal eta osagaiak, anesi zerbitzuak

Koak - Estak - Utzerrako estak

Eskatzen diren osagaiak eta zerbitzuak

Nazio eta Nazioarteko trukeak

Mugica
Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

GREMIOEN



ANTENAK

BALATZ S.L.
**Instalakuntzak eta konponketak
 antenak - telebista**
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
 balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

**ELECTRICIDAD
 CUADRA EC**
 Instalación y mantenimiento de
 instalaciones eléctricas
 y de comunicaciones
 y de sistemas de
 automatización
 industrial y comercial
 y de sistemas de
 energía solar

GARBIKETAK

**Limpieza
 Multiservicio
 Eibar**
 Superficie
 mota guztietako
**garbiketa eta
 mantenimendu zerbitzua**
 Tfnoa. 943 254 615
 Mobila 688 609 171 **Barrena, 21 - 1. F**

Ego Gain z/g
 Tfnoa. 943 12 73 50
 Faxa. 943 20 73 60
 www.trinmer.com
trinmer
**TELEKOMUNIKAZIOAN
 PROFESIONALAK**

GURIA
ELEKTRIZITATEA
 Muntaiak eta
 proiektu elektrikoak
 Matsaria 2
 7. pabilioia
 Tel. 943 70 08 95
 Fax. 943 82 00 27
 www.electricidadguria.com

**TREJO
 GARBIKETAK S.L.**
 Tel: 943-752557
 Faxa: 943-752556
 16 Postakutxatila - Soraluze
*Garbiketa eta
 mantenimendua*

AROTZAK

IÑAKI
 Egurrezko mota
 guztietako lanak Ateak - Tarimak
 Altzariak
 Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

HODI-LIBRATZEAK

ATAX
 — Hodi-libratzeak
 — Saneamenduen garbitzea
 presio handiko makinariarekin
 — Ur ateratzea ufalen ondoren
 www.desataxcos.com
LARRIALDIETARAKO (24 orduetan): 673 304 222

**SUKALDE ALTZARIAK
 *
 AROZTEGIA**
Iparragirre Anaiak
 F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
 Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
 Mobila: 657 79 56 78

**ulmar
 S.L.**
 aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
 baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
 Txonta, 30 - 1. eta behea
 Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
**ERAKUSKETA
 EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)**

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104



irazabal
JOSE MARIA IRAZABAL, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

azitain industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskaltel.net
eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



● Nexa
Autocolor

● Pintura
industrialia

● 3M
produktuen
banatzailea

PINTURAS ARRATE, S.L.

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89



Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA
OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com



Asier Orbea

Nola demontre saldu

Taberna bateko mahai inguruan tertulia alaian, edo musean, mendian, kalean lasai asko eta inongo presarik gabe, edo etxeko egongelan, hartu tele-mandoa eta zapping-ean arratsalde oparoa igaro daiteke. Eta zenbat modu gehiago dauden arratsalde ederra igarotzeko. Horietako bat frontoira joan eta profesional mailako esku pilota partidu ederrak ikustea izan daiteke.

Laurogei urte bueltan dabilizan batzuei entzunda: sasoi haietan Sanjuanetan, jardunaldi berean, hiru jaialdi iragartzen ziren (goiz, arratsalde eta gauz), eta hiruretan armailak beteta egoten ziren. Eta gaur egun? Erantzunak asko eta era guztietakoak: krisian gaude; lehengo pilotariak gaur egungo Aimar Olaizola, Irujo, Titin, Zubieta... baino hobeak ziren; ez du merezi 20 € ordaintzea jaialdi bat ikusteagatik; mila aukera daude arratsaldea igarotzeko, frontoira joan beharrean...

Oraindik ez diot inori entzun "frontoira joaten aspertu egin naiz". Eta aspertzeak ez du zerikusirik diruarekin, kantxan pilotariak duten mailarekin, eta arratsaldea igarotzeko dauden mila aukerekin. Pilota gustoko badugu, mila aukera horiek bigarren leku batean jarraituko dutelako. Legatza jaki ederra dugu eta oso gustokoa, eta arraindegian 7'50€tan, Ondarrukoa, eta amutik arrantzatutakoa dela iragartzen badigute ere, ez dugu erosiko, egunero jabez gero azkenean aspertu egingo garelako. Baina... jendea lehen ez zen aspertzen? Hurrengoan jarraituko dugu.

Bigarren zatian erabaki zuen Somos Eibar Eskubaloiak

Eibar Eskubaloiko talde nagusiak 23-18 irabazi zion Elgoibarko Alcottari estatuko lehen mailako ligako lehenengo jardunaldian. Ipuruan jokaturako partiduari urduri ekin zion Eibarko taldeak eta ate aurrean huts asko eginez: horren ondorioz, atsedenaldira 8-11 galtzen joan ziren Alvarezen mutilak. Bigarren zatian beste aurpegi bat eskaini zuten eibartarrek eta, 15-7ko partzialari esker, ondo nagusi-



Elgoibartarren aurkako partiduan 300 ikusletik gora izan ziren.

tu zitzaizkien elgoibartarrei. Bihar, ligako bigarren jardunaldian, Kantabriako Balonmano Corralesen zelaian jokaturako dute.

Lau taldek hartu dute aurrea foball-zaletuan



Jokatutako partidu biak irabazita, laukote bat osatu da sailkapeneko goi-goian, hiru puntuko aldearekin. Garage García (4-1 Txokori), Durango (2-0 Sporting-i), Alkideba (4-3 Tankemans-i) eta Koskor azken txapelduna (1-0 Esmorgari) dira jokatutako partiduetan garaipena lortu dutenak. Kontrako ibilbidea egin dute EzDok-ek (0-1 Azkena Kaltonekin) eta Somos Sporting-ek, jokatutako partidu biak galduta.

Bihar Azkena-Esmorga, Alkideba-Sporting, Iruki-García eta Mujika-Tankemans jokaturako dira; eta, etzi, Ezdok-Areto, Koskor-Txoko eta Durango-Caserío.

Mallabiko II. mendi-duatloia domekan

Goizeko 11.30etan Mallabiko parkean hasiko den probak zazpi kilometro izango ditu oinez (ia 300 metro igota), 16 kilometro bizikleta gainean (700 metro igo) eta ia hiru kilometro eta erdi oinez berriro (beste 150 metro igotzeko). Izen-

emateak biharko egin beharko dira www.mendiduatloia.com helbidean eta, informazio gehiagorako, 630-762211 (Xabat) telefono zenbakira deitu dezakezue. Parte-hartzaileen gehieneko kopurua 200 lagunekoa izango da.



APUNTA

BESTE BIDE BAT

Badira urte batzuk txirindularitzak, ohiko bideak alboratu eta bestelako bide batzuei heldu diela. 1 Formulako eredu hartu dute UCI-koek, gurpilen mundua ezezaguna zaien herrietara zabaldu nahian, bidean hain eurena zutenei bertan behera lagatzera derrigortuz: zaletasuna izanda ere, lasterketa asko desagertu dira inguruan. Orain beste urrats bat ematera doaz eta taldeak, goi mailakoen artean jarraitzeko, puntuak dituzten txirindulariak fitxatzera behartuta ikusten dute euren jarduna: Euskaltel-Euskadi bezain talde berezia izanda ere. Debabarrena taldean jardundako Amets Txurruka izan da kaltetuetako bat, Iban Velascokin batera: biak kalean gutxien espero zutenean, punturik ez dutelako. Erabaki horiekin zaila izango da talde-lana egitea. Zuzendariak zelan aginduko dio txirindulariari beste baten alde lan egiteko, denboraldi amaieran punturik ez duela eta taldetik bota badezake? Bitartean, errepideko ahulenak beste bizi bat galdu du bertan: Victor Cabedo -Valenciagan garaile 2010ean- istripuan hil da.

Eibarrek liderra hartuko du bihar Ipuruan

Orain arte partidurik galdu ez duen eta golik ere jaso ez dituen Alavés izango du Eibar KEK bisitari bihar arratsaldean Ipuru zelaian. Neurketa 18.00etan hasiko da eta ETBI-ek emango du zuzenean. Partidua hasi aurretik, Londreseko olinpiadetan jardun duen Ander Romarateri egingo zaio omenaldia: diploma olinpiko bi jaso zituenak egingo du ohorezko sakea. Klubari Laguntza Erdiko Eguna izendatu dute norgehiagoka eta bazkideak (10 euro) txarteldegitik pasatu beharko dira, Ipuruan edo Untzagako Jubilatu Etxean; ez bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute.

Errege Kopa urriaren 17an

Arroyoren aurkako partidua urriaren 17an jokatuko da Ipuruan, 20.00etan hasita, eta



Arruabarrenaren gol batekin irabazi zuen iaz Eibarrek.

hor bazkideak ez dute ordaindu beharko eta sarrera bat ateratzeko aukera izango dute 10 eurotan. Bestalde, Alavés-eko zuzendaritzarekin adostutakoaren arabera, hona etorriko diren zaletu babazorroek eta Gasteizera joango diren eibartarrek kopuru bera ordainduko dute partidu bietan: 18 euro.

MAQcenter-ek hasi-berri saria ordaindu zuen liga hasieran

Igotzeko borrokan egotera deituta dagoen Meatzari Gallartak 5-6 irabazi zion Eibarko areto-foballeko taldeari, partiduko azken hiru minutuetan ordura arteko emaitza irauli eta gero. Lehenengo zatia hirunako berdinketarekin amaitu zen eta, bigarrena hasi bezain laster, 5-3 aurreratu ziren eibartarrak; hala ere, ez zuten jakin izan markagailuari eusten eta azkenean amore eman behar izan zuten. Asteburu honetan Eskoriatzan jokatuko dute ligako bigarren jardunaldia.


Debabarreneko talde nagusienak, Bigarren B mailan jokatuko duen Concepto Egi-



lek, bestalde, Zierbanaren aurka lehiatuko du asteburuan denboraldiaurreko azken lagunartekoan.

Xake Eskolarako matrikulazioa zabaldu dute

Urriaren 19an hasiko dira Ikasturte osoan Klub Deportiboko Xake Eskolak emango dituen klaseak, iazko moduan LHko 6. mailara arteko ikasleei zuzendutakoak. Matrikulazio



epea urriaren 5ean amaituko da eta, ondoren, taldeak antolatzen joango dira. Interesatuak Deporetik pasatu daitezke, 18.00etatik aurrera, edo xakea@deporeibar.com helbidera idatzi.

Yoga integratua Kiroldegian

Egunero praktikatzeko tailerra eskainiko du Kirol Patronatuak urritik aurrera. Maila bitan banatu ditu klase horiek, biak ere zapatuetan eman beharrekoak, honako ordutegian: 09.00etatik 13.00ak arte. I mailakoak urriaren 20an, azaroaren 17an eta abenduaren 15ean emango dira. Jarraian hasiko dira II. mailako tailerrak: urtarrilaren 19an, otsai-


berriak

RUIBALEN GARAIPENA

Ruibal Alquiler-ek 63-58 irabazi zion Donostiako DKS-ri 2. maila probintzialeko liga-ko lehenengo jardunaldian. Miguel Sánchezek zuzentzen dituenak ez zuten partidu haundirik egin aurten erreku-peratu duten mailako estreineko partiduan; horrela, atsedendian 26-27 galtzen zihoazen. Hirugarren laurdenean hartutako abantailari heldu zioten eta bost puntu-ko aldeaz irabazi. Azurmendi izan zen saskiratzaile onena.

HIRU-TXIRLO

Iruzubietan jokatutako Euskadiko XXIII. hiru-txirlo bola txapelketako lehenengo jardunaldian, bertako Ricardo Albizuri eta Floreagako Bruno Mendes nagusitu ziren, 7 txirlorekin bakoitza. Hurrengo jartialdia Soraluzeko Ezozian izango da bihar, arratsaldeko 17.00etatik aurrera. 64 bolarik hartu zuten parte.



laren 16an eta martxoaren 16an. Bertan honako esparruak landuko dira: yoga integratuaren berezitasunak, oinarrizko kateamenduaren trebetasunak lantzea, gorputz-jarreraren arnasketa koordinazioa eta lerrotatzea ezagutzea eta eguneroko praktika sustatzea. Izen-ematea gutxienez astebete lehenago egin beharko da.



GURUTZE BEITIA antzezlea

"Estela Maria Lourdes oso zoriontsu eta ondo bizi da"

Antzerki emankizunen ohiko programazioari ekingo dio asteburuan Udalak, Jai Productions enpresarekin batera antolatutako '¡¡¡A guuuuuuuusto!!!' antzezlanean. Zapatuan 22.30etatik aurrera Glu Glu Producciones taldearen lana aurkeztuko dute Coliseoan Gurutze Beitia eta Gorka Aginagalde aktoreek. Sarrera egunean bertan erosteko aukera izango da, 15 eurotan, ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago.

- Zelako istorioa kontatzen duzue antzelanean?

Gorkak eta biok Varadero doan euskaldun baten istorioa kontatzen dugu: bera Patxi Arrigagorritxerriberrigoitiabeitia da eta urteetan Kubara oporretan joaten da. Bidaia joan, bidaia etorri, han Estela Maria Lourdes de Aquitepilloaquitemato, Varadero kubatar alai ezagutzen du, elkarrekin maitemindu eta berakin ezkontuta Euskal Herrira bueltatzen da. Antzezlanean arketipo modura planteatutako pertsonaia bi horien bizipenak kontatzen ditugu: lagunei aurkeztea, Euskal Herrian jairik jai ibiltzea eta beste hamaika kontu. Hori bai, kontatzen ditugun guztiak umorez gainezka egiten duen moduan kontatzen ditugu, ikusleei barrea eraginda.

- Zelakoa da Estela Maria Lourdes?

Ba oso zoriontsu bizi den kubatarra da. Berak senarra asko maite du, oso maiteminduta dago eta, gainera, senarrak diru mordo duenez, ba oso ondo bizi da, ardua haundi barik eta nahi bezain beste diru gastatuta. Euskaltegira euskera ikastera ere joaten da, baina hala ere hizkuntzarekin hankasartze asko egiten ditu, sarritan oso gauza barregarriak esanez.

- Eta Patxi, nolakoa da?

Ba Patxi oso gizon ona, bihotz onekoa da, baina era berean piskat zakarra ere bada. Horrez gain, jatun ona da, asko edatekoa eta munduari buruz oso ikuspegi berezia dauka.

- Antzezlanean kontatzen duzuenaren atzean turismo sexualaren gaia antzeman daiteke. Nola lortzen duzue horrelako gaiari umorez heltzea?

Pentsatzen dut posible dela ia edozein gairen inguruan barre egitea, beti ere errespetua galdu barik. Gure antzezlana ez da turismo mota horretan oinarritzen, antzekotasun batzuk aurkitzea posible izan arren. Edozein kasutan, guk ez diogu inori barre egiten, umorezko egoera guztietan errespetuz jokatzeko dugulako.



Bien Aparecida jaiak azken txanpan

Kantabriako Etxekoek irailean ospatzen diharduten Bien Aparecida jaiak azken txanpan sartu dira eta, horiek agurtzeko, bihar 16.00etan igel, igel-toka eta "cuchillo" txapelketak jokatuko dituzte Ipuruako bolatokian eta 20.00etan, berriz, Marceros de la Bahía eta El Sarruján de Santoña taldeen emanaldia hartuko du San Pio X.a elizak.




Legarreko jaiak giro ederrean ospatu zituzten

Barixaku eta zapatuan ospatu zituzten jaiak Legarre aldean eta antolatutako ekitaldiei esker ondo baino hobeto pasatzeko aukera izan zuen jendeak. Jaiak antolatzen ibilitako Arrajolape Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkiete jaietan parte hartu duten guztiei eta, bide batez, zozketetan saritutako zenbakiak 1.952 eta 655 izan direla jakinarazi.

Euskal Dantza liburua idatzi du Oier Araolazak

Etxepare Institutuak eskatuta, Euskal dantza liburuska idatzi du Oier Araolaza Arrieta eibartarrak. Egunotan jendaurrean aurkeztu den lana euskal kulturari eskainitako 12 liburuko bildumaren baitan argitaratu du Etxepare Institutuak. Liburuska laburrak dira, hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez) idatziak eta argazki askorekin.



Ikastaroa eta txangoa antolatu ditu Kultuk

Arrate Kultur Elkarteak hainbat jarduera antolatu ditu **urrirako**. Batetik argazkigintza digitalaren inguruko ikastaroa emango du Jose Luis Irigoienek. Antolatzaileen berbetan, "oinarrizko ikastaroa izango da, edonorentzako, eta ez da argazkigintzari buruzko ezagutzarik eduki behar". Klaseak urriaren 17tik azaroaren 21era bitartean izango dira, eguaztenero 19.00etatik 21.00etara. Azken zapatu goizean Saturrarana irteera egingo da. Prezioa 17 eurokoa izango da bazkideentzat eta 20 eurokoa gainontzekoentzat. Izena emateko epea urriaren 11etik 11ra bitartean egongo da zabalik, Arrate Kultur Elkarteako bulegoan martitzen eta eguenetan



Urriaren 27an egingo dute irteera Irungo Erromatar Museora.

17.00etatik 20.00etara, telefonoz (943 202299) edo, bestela, e-mailez arratekultu@gmail.com.

Horrez gain, urriaren 27an Oiasso-ko (Irun) Erromatar Museora irteera antolatu dute. Autobusa goizeko 09.30-

etan irtengo da Ego Gainetik eta irteeraren prezioa (bidaia, museorako sarrera eta bazkaria barne) 27 eurokoa izango da bazkideentzat eta 30 eurokoa besteentzat. Joan nahi duenak aldeztu aurretik izena eman beharko du.

San Andres bertso-paper lehiaketa martxan

XVIII. edizioa abian da jada, eta parte hartu nahi dutenek honakoak bete beharko dituzte: 16 urtera artekoek (Eibarko ikasleek) bertso bat edo 2 kopia aurkeztu beharko dituzte, eta 16 urtetik gorakoek, berriz (Euskal

Herri mailan), 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez (asko jota 10 bertso). Gaia eta doinua libreak dira eta bertsoek jatorrizkoak izan beharko dute. Lanaren 3 kopia bidali beharko dira, gaitzizkinarekin sinatuta; beste orri batean, eta gutunazal itxian, gaitzizkinarekin identifikatzeko datuak (izen-abizenak, telefonoa eta adina). Bertsoak ...eta kitto! Euskara Elkartearen jasoko dira (Urkizu 11, solairuarte), azaroaren 5a baino lehen. Epaia azaroaren 16an jakinaraziko da, eta irabazleek azaroaren 25ean Portaleko areto nagusian egingo den San Andres bertso-jaialdian jasoko dituzte sariak. Umeen mailan irabazleak liburua eta txapela jasoko ditu eta bigarrenak, liburua eta plaka. Nagusien artean, lehenak 300 euro eta txapela eta bigarrenak, berriz, 250euro eta plaka.



Aurreko edizioko irabazleak bertso-jaialdian.


laburrak

ARTE TAILERRAK

Urriaren 1ean hasiko dira Maite Arriagak ematen dituen arte tailerrak: Giza Irudiaren eta Pinturaren ingurukoak (helduendako) Arrate Kultur Elkartearen izango dira, umeendako pintura Isasi kaleko estudioan emango du, sormena indartzeko tailerra Portalean eta, horrez gain, azken hori on-line jarraitzeko aukera ere eskainiko du. Informazioa eskatzeko eta izena emateko www.maitearriaga.com helbidera jo daiteke.

JAIETARAKO BILERA

San Andres jaiak prestatzeko bilera astelehenean, urriaren 1ean izango da, arratsaldeko 19.00etan, Portalean (ikastaro gelan, 3. pisuan). Interesa duten guztiei bertara agertzeko dei egiten diete.



ENPANADA EGUNA


Urriak 6an Galiziako Etxeak Enpanada Eguna ospatuko du Urkizun eta, aurrekoetan moduan, enpanada lehiaketa antolatu dute. Parte hartu nahi duenak eguenean bertan aurkeztu beharko du etxean egindako enpanada, 12.30ak baino lehen.

BRUNA LARREATEGUI IRAOLA

1. URTEURRENA (2011-IX-24)

ZURE ALAITASUNA betirako izango da GURE ARTEAN.

Zure familia





Oier Araolza

Ezer ere ez

“Eibarren ez dago ezer ere ez”. Pasa den asteburuko agenda Eibarren: dantza Coliseoan, Euskaraz Bizi korrika festa, Legarreko jaiak, Mugikortasun iraunkorraren eguna, Pedal eguna. Oraingo honetakoa: Klub Deportiboaren Ate Irekien eguna, Aginako jaiak, Kulturen festa,... Horrez gain erakusketak Portalean, Topalekun, hainbat tabernatan, eta noski, kirol jardunaldiak Ipuruan, Unben, e.a. Asteburu bat eta bestea ere bai, horrelakoak dira gehienak Eibarren. Baina hor da beti ugaratxoa, tragoa eskuan eta arrazoia eztarrian, korrok egiteko prest: **“Eibarren ez dago ezer ere ez”.**

Badago non egin eta zer aukeratu. Kultur eta kirol zale askok, beren gustuko jarduerak egiteaz gain, beste guztiokin konpartitzeko lan egiten dutelako. Horietakoak dira, adibidez, Eibarko Klub Deportibokoak, mendia, eskia, argazkilaritza, espeleologia, atletismoa, dantza, xakea, squash, kultura, pilota, urpekaritza eta ziklismoa egin eta bultzatzen dira Deportivoan. Horiek guztiak elkarte bakarrean, bai. Batzuk ez dira erraz ikustekoak, espeleologoak adibidez, baina hor dabilta, lurpean, satorraren moduan. Besteak mendian, Unben, Portalean, Ipuruan, itsasoan edo Deportivoan. Larunbat honetan, Klub Deportiboaren Ate Irekien eguna ospatuko da. Kirol eta kultur jarduera eskaintza zabal eta harrigarria ezagutzeko aukera. Datorren astean, tragoa eskuan eta arrazoia eztarrian, korrok egingo du ugaratxoak berriz ere: **“Eibarren ez dago ezer ere ez”.**

○ Arian-arian euskalduntzea

Nork bere kabuz euskara ikasi ahal izateko Arian izeneko metodoaren bigarren liburu sorta. A2 mailaren lehen erdiari dagoiona, kaleratu du Elkar argitaletxeak. Hamabi unitate izaten ditu maila bakoitzak eta lehen sei unitateak dira orain argitaratu dituztenak; urtearen amaierarako beste sei unitateri dagozkien materialak kalera-tzeko asmoa dute. Iaz aurkeztu zuten lehen liburu sorta eta eguneroko egoeretan oinarritzen da ikasketa bide hau, batez ere praktikotasunean. Progresioa da metodoaren beste giltza. urratsez-urrats ikaslea murgilduz.

○ Euskara sarean toki egiten

Euskararen presentzia sarean gero eta handiagoa da: berriki Twitter euskaratu dute, eta Facebook, Tuenti eta Gogleren zerbitzuak ere jaso daitezke euskaraz. Hori Interneteko euskal komunitatearen lanari esker lortu da: blogak izan dira euskarazko edukiak sarean txertatzen aitzindariak. Bestalde, Wikipedia ezagutza libreko entziklopediak euskarazko 100.000 artikuluren langa gainditu zuen iaz. Hori bai, Twitter euskaratu duten arren, sare sozialak ez die aitortzen euskal erabiltzaileei komunitate izaera; hori lortzeko, kanpaina bat abiarazi dute sarean.

euskararen txokoa

Euskararen alde antxitxiketan

Aurreko zapatuan jai giroa nagusitu zen Euskaraz Bizi Nahi Dut

euskararen aldeko lasterketaren aitzakiarekin. Adinaren arabera ibilbide ezberdinari jarraitu zioten lau lasterketa egin ziren eta azkenak, 18 urtetik gorakoentzat prestatutakoak elkartu zuen korrikalari gehien. Kontseiluak deituta egin den ekitaldia antolatzen AEK Euskaltegiak, Udal Euskaltegiak, ... eta kitto! Euskara Elkarteak, Klub Deportiboak, Eibar Triatloi Taldeak eta Euskal Herrian Euskaraz elkarteak jardun zuten eta, eurek emandako da-



Lau lasterketa jokatu ziren guztira Euskaraz Bizi Nahi Dut programarekin.

tuen arabera, Eibarren guztira 231 lagunek eman zuten izena lasterketan parte hartzeko. Amaieran hainbat sariren zoz-


keta egin zen Untzagan eta bi lagunek ez dute oraindik saririk jaso: Nagore Cabrera (351 zenbakia) eta Beñat Gomez (355 zenbakia). Klub Deportivoan jaso dezakete dagokien saria. Bestalde, hainbat lagunek izen-ematea internet bidez egin zuten, kamiseta ordainduta, baina ez zuten jaso. Horiek jasotzeko Portalera jo beharko dute (1. pisura). Bestalde, lasterketan ateratako argazkiekin bilduma osatu du gu gure Facebook-eko orrian (Etakitto), nahi duenak argazkiak ikusi edo jaitsi ditzan.




Hainbat sari banatu ziren lasterketak amaitu eta gero. LEIRE ITURBE

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, AIZPEA, etxeko neska alaiarenak urtiak egin zittuan-eta atzo. Egun zoragarria pasauko zenualakuan, muxu bero bat famelixakuen partez.




Zorionak, EKHI, atzo lau urte bete zenuaz-eta. Patxo potolo bat etxekuen partez, txipiron... Maite zaitugu.



Ongi-etorri hillaren 14an jaixo zan LOREA Pérez de Lastra Mateos-i eta zorionak aitaxo Mikel eta amatxo Marian-i.



KEPAK, gure rubixuak, bederatzi urte bete zittuan haraiñegun. Zorionak famelixa eta lagun guztien partez. Segi holan, jator, wapo!



Zorionak, MALEN, bixar bederatzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, BEÑAT, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, NEREA, aurreko domekan urtia bete zenuan-eta. Etxekuen partez




Zorionak, ANER, domekan urtia beteko dozulako. Aitta, ama eta etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL Lapeyra, haraiñegun bi urte egin zenuaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IÑIGO Ros Lasuen, bixar lau urte egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, MIREN, astelehenian urtebete egin zenuan-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL, martitzenian hiru urte egingo dozuz-eta. Gurasuen eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARATZ eta RIKI!!! urriaren 2xan zuen eguna izango da-eta. Patxo haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, DANEL, eguaztenian bost urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.

hildakoak

- Pepita Mentxaka Goiarzun. 92 urte. 2012-IX-2.
- Gabriela Cartón García. 95 urte. 2012-IX-20.
- Isabel Markina Lejardi. 84 urte. 2012-IX-22.
- Joaquina Blas Silva. 76 urte. 2012-IX-23.
- Socorro Pérez García. 95 urte. 2012-IX-23.
- Armando Irueta Sarasua. 88 urte. 2012-IX-25.

jaiotakoak

- Sare Albistegi Larrañaga. 2012-IX-15.
- Markel Romano Pejenaute. 2012-IX-17.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

28an: 22.30


29an: 19.45, 22.30

30ean: 17.00, 20.00

1ean: 20.30

"Qué esperar cuando..."

Zuzendaria: Kirk Jones



(2 ARETOAN)

28an: 22.30

29an: 19.45, 22.30

30ean: 17.00, 20.00

1ean: 20.30

"Elefante Blanco"

Zuzendaria: Pablo Trapero



(ANTZOKIAN)

28an: 22.30

30ean: 20.00

1ean: 20.30

"Si de verdad quieres"

Zuzendaria: David Frankel



(ANTZOKIAN)

29an: 17.00

30ean: 17.00

"Las aventuras de Tadeo" 3D

Zuzendaria: Enrique Gato



BARIXAKUA 28

AGINAGAKO JAIK

18.00. Kanpai iraulketa. Aginagan.

GIZA-KATEA

19.30.- "Euskal presoak etxera" giza-katea, Eibarko Herrirak deituta. Untzaga plazatik.

ONGIETORRIA

20.30.- Aniaiz Ariznabarretari ongietorria. Txaltxa Zelaian. Ondoren, afaria gatzetxean.

BERTSO-AFARIA

21.00.- Bertso-afaria, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin. Asola-Berri elkartearen.

ZAPATUA 29

DEPORREKO ATE IREKIAK

09.00/23.00.

Klub Deportiboaren Ate Irekiak. T. Etxebarria, Calbetón, Zuloagatarren eta Untzagan.

W. ORBEAKO JAIK

11.00. Kalejira, trikitilarietara. Jolasak (sokatira, zaku-lasterketak, txapela botatzea...). Herri-kirolak (harri txikiak, gazteendako). Txistorra pintxoak.

14.30. Bazkaria (marmitakoa), igogailuaren plazoletan.

17.00/21.00. Play-back. Wenzeslao Orbean.

AGINAGAKO JAIK

11.00. Meza nagusia, Usartza txistulari bandarekin.

12.00. Lunch-a eta umeendako jolasak.

14.00. Lagunarteko bazkaria, Usartza txistulari bandarekin.

17.00. Briska txapelketa.

17.30. Umeendako jolasak eta txokolate jana.

21.00. Lagunarteko afaria.

23.00. Erromeria, Gardoki taldearekin. Goizaldera, txokolate jana. Aginagan.

BIEN APARECIDA JAIK

16.00. Igel, igel-toka eta "cuchillo" txapelketak. Ipuruako bolatokian.

20.00. Marceros de la Bahía eta El Sarruján de Santoña taldeen emanaldia. San Pio X.a elizan.

ANTZERKIA

22.30. ¡¡¡A guuuuuusto!!!, Glu Glu Producciones taldearen eskutik. Coliseoan.

DOMEKA 30

ALDERDI EGUNA

09.15.- Forondara, Alderdi Eguna joateko autobusa. Urkizun (Zubi Gain parean).

09.30.- Autobusaren irteera Ego Gainetik.

KULTUR ARTEKO JAIK

11.00. Munduko sukaldaritza. Haur eta helduendako tailerrak. Zurrumurruekin Txokoa. Munduko musika eta dantza erakustaldiak

12.30. Dantza latindarrak, Lacasiuaren eskutik,

13.00. Senegalgo M'Lomp perkusio taldea. Untzagan.

AGINAGAKO JAIK

11.00. Meza nagusia.

12.30. Lunch-a eta Gorritiren abereak.

14.30. Paella-jana, trikitilarietara.

17.00. Jaiei amaiera emateko zozketa. Aginagan.

EGUENA 4

ODOLA ATERATZEA

18.30. Odol-emaileentzat odola ateratzea. Odol-emaileen elkartearen (Pagaegi, 5 behean).

ikastaroak

✓ Autoen mekanika eta etxeko konponketak

Non eta noiz: **Urriaren 9tik azaroaren 27ra arte, martitzenetan, 17.50etatik 19.50etara Andretxean.**

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

✓ Autodefentsa feminista

Non eta noiz: **Urriak 20, goiz eta arratsaldean Portalean (ikastaro gelan).**

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

✓ "Sentitu, pentsatu ekin eta mugitu feminismoan!"

Non eta noiz: **Urriaren 1etik azaroaren 5era arte, astelehenean, 18.00etatik 20.00etara San Andres ikastetxean.**

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

HOROSKOPOA

ARIES

Gaua heltzearekin, beste pertsona bat bihurtzen zara. Ez zara gizotsoa izango? Ondo pentsatuta... ile asko daukazu!

TAURUS

Bihotza beteta izango duzu aste honetan. Maite duzun pertsona hori baino ez dago zuretzat. Etorrizun oparoa izango duzue.

GEMINI

Beti lehena izan nahian, ez dakizu galtzen. Beti lehian, gainera! Muga non? Zu baino zurrungoia izango den batekin.

CANCER

Ikusita zure azken pausoak, hobe duzu isilik egon, hanka sartu aurretik: aste honetan hobe duzu entzutea bakarrik.

LEO

Aspaldi ikusi ez duzun laguna sartuko da berriz zure bizitzan. Kalte egin bazizun ere, barkatu egiozu, aldatu egin da-eta.

VIRGO

Azken aldian duzun zorteararekin, hartu eta Las Vegaseko kasino batera joatea bakarrik falta zaizu. Gorde sekretua!

LIBRA

Pirata bat zara: zure ametsetan, pirata maltzur gupidagabea. Baina ez zara bakarra: inoiz baino gehiago zaudete.

SCORPIUS

Atzerriara joateko aukera izango duzu. Zer komeni zaizu gehien? Erabakitakoa ondo egongo da; asmatuko duzu, ziur!

SAGITTARIUS

Artista bat zara: denek egiten dute nahi duzuna. Zure xarma berezi hori... botere misteriozua baino zeozer gehiago da.

CAPRICORNIUS


Euli bat hiltzeko gauza ez zara. Behin edo behin barrabaskeriren bat egin beharko zenuke: ea zer sentitzen duzun.

AQUARIUS

Kuba ezin duzu burutik kendu. Hango rona eta puruak, bertako palmondoak, hondartzak... Hasi bidaia prestatzen.

PISCIS

Azken aldian ez zaizu ezer inporta; denbora azkarrago pasatzea besterik ez duzu nahi. Hori bizitzea da? Seguru?



erakusketak

✓ Irailaren 30era arte

AFOTMIR, MONTCADA I REXACH-eko argazkilari elkarteak. Erakusketa. Klub Deportiboan.

BAKARNE ELEJALDE. Argazki erakusketa. Portalea tabernan.

JOSE IGNACIO DE CASTRO. Argazki erakusketa. El Ambigú kafetegian.

"Mendi artean" **BIXENTE**

EIZAGAETXEBERRIA. Argazki erakusketa. Untzagako jubilatuetxean.

✓ Urriaren 7ra arte

IÑIGO IZAL. Komikien erakusketa. Topalekuan.

✓ Urriaren 14ra arte

JUAN ANTONIO PALACIOS. Argazki erakusketa. Portalean.

farmaziak

✓ barixakua 28

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

✓ zapatua 29

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

✓ domeka 30

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

✓ astelehena 1

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

✓ martitzena 2

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

✓ eguaztena 3

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ eguena 4

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ barixakua 5

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR**. Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR**. Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR**. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR**. Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Eguzkerako: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **EIBAR-MENDARO**. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR**. Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.


tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Eguzkerako: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR**. Eguzkerako: 07.47etatik 20.47etara ordu. 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Eguzkerako: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR**. Eguzkerako: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

6					9	3	
3			9		5		
				1		8	7
				6			5
9	2					7	4
7			8				
2	5		7				
		6		4			9
	3	4					2

SUDOKUA



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Estaziño kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, 2 komun eta trasteroa (8 m²). Igogailua. 81 m². Guztiz berritua eta altzariekin. Tel. 660-739563.
- Pisua salgai Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, komuna, ganbara eta balkoi handia. Berritzeko eta igogailua jartzekotan. Tel. 645-008496.
- Pisua salgai Errekatu kalean. Logela bi, jangela, sukaldea eta komuna. Altzariekin. Berogailua. Sartzeko moduan. Merke. Tel. 659-757572.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Wenzeslao Orbean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. Merke. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 622-049086.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 628-872295.
- Gela biko pisua hartuko nuke alokairuan Ermuan. Tel. 608-474923.
- Pisua konpartituko nuke beste lagun batekin Eibarko erdialdean. Tel. 689-236575.
- Pisua alokagai Unibertsitate Laboralaren parean. Lagun bat edo birenzat. Tel. 660-378181 eta 943-207271.

1.3. Konpartitzeko

- Urkin pisua konpartitzeko laguna behar dut. Tel. 686-735525.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Antonio Gisaola kalean. Tel. 610-698277.
- Taberna alokagai Eibarren, jubilaria dela-eta. Sozietate edo elkarteak egiteko aproposa. Tel. 672-777429.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-155950.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 608-180132.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta soziedadarako garbitzeko. Tel. 674-259376.
- Gizonezkoa eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 647-898016.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-363778.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 662-012834.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-912841.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 627-784812.
- Neska euskalduna eskaintzen da ileapindegi batean lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Tel. 610-096417.
- Biolin eta cello bikotea eskaintzen da ezkontzak, mezak eta beste ekitaldietan musika jartzeko. Tel. 666-269636 (Elorri) eta 666-329728 (Joana).
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 645-555265.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-604531.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-205572 eta 618-175692.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-236564.
- Emakumea eskaintzen da etxeko-lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 645-557141.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 648-505256 eta 943-821537.
- Gizona eskaintzen da baserriko lanak egiteko, tabernak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 688-812845.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 649-775029.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-348180.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 674-027961.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako, batez ere ileapaintzaile moduan. Tel. 652-305279.
- Neska arduratsua eskaintzen da astean birritan eta zapatu goizetan etxeko lanak egiteko. Tel. 680-973549.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 660-213652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683. Maria.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 630-826813.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile. Tel. 606-569927.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 669-311385.
- Emakume arduratsua eskaintzen da tabernak, elkarteak... garbitzeko. Tel. 660-073781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauzez eta ospitalean) eta pegorak garbitzeko. Tel. 699-609190.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan sukaldari. Tel. 637-294236.
- Pedagogiako 3. mailako ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko eta klaseak emateko arratsaldean. Tel. 677-591982.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan sukaldari. Tel. 610-997046.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 636-423493.

4.2. Langile bila

- Logopeda behar da kabinete pribatu batean. Tel. 943-202715 eta 670-824327.
- Sukaldaria behar da Eibarko taberna baterako asteburuetan. Tel. 677-380689.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Pertsona bat behar da DBHko klase partikularrak emateko. Tel. 622-824468.

5.2. Eskaintzak

- Magisteritzako irakaslea eskaintzen da klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko. Tel. 638-855268.
- Irakaslea eskaintzen da erreferentziak klaseak eta ikasteko teknikak emateko. Esperientzia. Tel. 696-036560.
- Neska eskaintzen da klase partikularrak emateko banaka, urte osorako edo zatika. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-348446.
- Psikologian eta Psikopedagogian lizentziatua eskaintzen da LH klase partikularrak emateko. Tel. 628-591462.
- DBH eta LHko ikasleentzako edozein ikasgaietako klaseak ematen ditut. Tel. 660-197589.
- Atzerriko hizkuntzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditu. Tel. 651-503971.
- Euskerazko klaseak ematen ditut. Azterketetarako prestakuntza: EGA, HABE, IVAP... Tel. 620-608065.
- Neska euskaldunak etxeko lanekin lagunduko lieke DBH-ra arteko umeei. Tel. 687-033834.


6. Denetarik

6.1. Salgai

- MP4 eta Panasonic haririk gabeko telefonoa salgai. Berriak. 25 euro biak. Tel. 943-120030.
- Autorako segurtasun aukia salgai. 1 taldea, Chicco markakoa. Tel. 669-208763.

6.2. Eman

- Batxilergoko 1. eta 2. mailako liburuak oparitzen ditut. Tel. 672-428273.



UNIVERSITY of CAMBRIDGE ESOL Examinations

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

ABENDUKO DEIALDIA
AZTERKETAK EIBARREN eta DURANGON

MATRIKULAK
Urriaren 2tik 16ra

AZTERKETA DATA

FCE FS (azterketa osoa) LARUNBATA **Abenduak 1**
CAE (azterketa osoa) LARUNBATA **Abenduak 1**
CPE (azterketa osoa) LARUNBATA **Abenduak 1**

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

<u>ARRASATE:</u>	Parlance Mondragon Lingua	943 77 06 83 943 71 20 55	<u>DEBA:</u>	Akabi North Street English	943 19 16 79 943 19 25 00
<u>BERGARA:</u>	Espolon School of English	943 76 03 53	<u>DURANGO:</u>	San Jose Maristak	94 681 00 58
<u>EIBAR:</u>	Anglo-American Link Idiomas	943 20 64 57 943 20 39 59	<u>MENDARO:</u>	Akabi	943 75 50 55
<u>ERMUA:</u>	Akerlei	943 17 66 32	<u>MARKINA:</u>	Chatterbox	94 616 96 39
<u>ELGOIBAR:</u>	Kensington School of English Key Academia de Inglés	943 74 02 36 943 74 30 44	<u>ELORRIO:</u>	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
<u>OÑATI:</u>	Mondragon Lingua	943 71 60 00	<u>BERRIZ:</u>	Speak up	94 622 52 94
<u>ONDARROA:</u>	Howdy	96 683 23 79	<u>ZUMAIA:</u>	Golden Gate	943 86 50 20
			<u>MUTRIKU:</u>	Gogoz	943 60 43 58

Urria osoan zehar
saio bakoitzeko
5€-ko deskontuaz
aprobetxatu zaitez
ec daga B.E.Z. -e igo!

Urriari "fotorejuvenecimiento"
tratamendua **25€** bakarrik!!!

eibar not+vello
fotodepilazioa tarifa planarekin

tf: 943 567 002 • eibar@nomasvello.com
bista-eder, 2 • 20600 eibar (gipuzkoa)

ZERBITZUA

ADMINISTRAZIOA

BILERAK

GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK

www.irazabal.net

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

KONFIANTZAZko enpresa
KALITATEZko lanak
bezeroarekiko **ARRETAZ** eginda

eraikuntzak
erreformak
igeltseritza

IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA



Zure ingurunea (etxea, bulegoa, tailerra...) aldatu nahi baduzu, GUK LAGUNDUKO DIZUGU... gustorago bititzen eta etorkizun hobegoaz gozatzen.

IRAZABAL-EKIN ELKARLANEAN JARDUNEZ GERO, HARRO ESAN AHAL IZANGO DUZU:

“Hau da nik nahi nuena”